

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu nagusiaren apirilaren 10eko 162/2019 Foru Dekretua. Honen bidez, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeko kideetako bat kargu horretatik kentzen da

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordea osatu eta haren arautegi organikoa onesten duen martxoaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren 40/1999 Foru Dekretuak hau adierazten du bere 8.2 artikuluan:

Batzordekideak lau urtez izango dira batzordean, baina iraupen bereko aldi gehiagoetarako izenda daitezke berriro ere. Kargu hori, edonola ere, Foru Administrazioko funtzionario izaera galtzeagatik utziko dute.

Diputatu nagusiaren apirilaren 26ko 74/1999 Foru Dekretuaren bidez, Isabel Arceredillo Zaldua Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeko kide izendatzen da.

Otsailaren 18ko 83/2019 Foru Aginduaren bidez, Isabel Arceredillo Zalduaren erretiroaren adierazpena egiten da 2019ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Horregatik, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen arautegi organikoan (Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 30eko 40/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia) adierazitakoarekin bat etorritik, honako hau

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Isabel Arceredillo Zaldua Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeko kide gisa kargugabetzea eta eskerrak ematea emandako zerbitzuengatik.

BIGARRENA. Foru dekretu hau 2019ko martxoaren 1etik aurrera egongo da indarrean, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN